

2022ko jardueren memoria - Elkartenet

Memoria de actividades 2022

2022ko jardueren memoria - Elkartenet

Formakuntzak + Tailerrak	2
TxikiLinux tailerra Miribilla eskolan.....	2
Miribilla eskola – Familientzako formakuntza.....	3
Kontxa eskolan IKT-Formakuntza + Toshiba Satellite.....	4
SanInazioBHI: Ekonomia zirkularra-hardware tailerra.....	5
Peñascal Kooperatiba-Elkartenet Kolaborazioa.....	6
Altza institutuan “Ekonomia zirkularra: hardware tailerra”.....	7
Ekonomia zirkularra tailerra San Benito ikastolan.....	7
Hitzaldiak	8
Informatikari Euskaldunen XII. Bilkura 2022.....	8
TxikiLinux-XILABA – Librecon2022.....	9
Iturola (Hernani): Software Libreko hainbat esperientzia praktiko.....	10
Kabia Digitala 2022ko Durangoko Azokan.....	11
KimuDigitalak: Euneraketak + Instalazioak	12
CPR-2022	13
Jasotako eta birgaitutako/birziklatutako ordenagailuen datuak.....	14
SOS Toshiba Bizirik.....	15
Osakidetza informatika solidarioa + Mugarik Gabeko Ikasgelak.....	16
Arizmendi ikastola BPZaren alde.....	17
Elkartenet-Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua.....	17
Intxaurrondoko biltegi birziklapena eta berrerabilera.....	18
Elkartenet + San Vicente de Paul.....	18
TxikiLinux-XiLaBa Xiberoa-Lapurdi-BaxeNafarroa.....	19
Donibaneko ikastola:.....	19
Herri Urrats-2022:.....	20
Seaskako ikastolen digitalizazioa:.....	20
BegiON – ikusmen murritzua duten pertsonentzat.....	21
Mugarik Gabeko Ikasgelak	22
2022ko maiatzean Errachidia-Mellab proiektua:.....	23
2022ko irailean: Gipuzkoako eta Bizkaiko ordenagailuak Mellaben daude.....	24
Errachidia 2022-2023.....	25
TxikiLinux-Errachidia bideotutorialak Tamazight hizkuntzan.....	25
Mugarik Gabeko ikasgelak: Samsara-Nepal + TxikiLinux.....	26
TxikiLinux BegiON bideotutorialak nepali hizkuntzan.....	26
Eskola 2.0 Ghanara ere iritsi da!.....	27
Informazioa +.....	28
Kontaktua	28

Jarduera horietako batzuk egiteko, [Bilboko Udalaren](#) eta [Bizkaiko Foru Aldundiaren](#) dirulaguntzak jaso ditugu.

Formakuntzak + Tailerrak

TxikiLinux tailerra Miribilla eskolan

- 2022ko martxoaren 24an informatika tailerra (TxikiLinux-en tresna didaktikoak) eman genien [Miribilla eskolan](https://www.miribillaeskola.net) 5 urteko eta Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasle eta irakasleei. [Toshiba Satellite ordenagailu egokituak](#) erabili dira, [Barakaldoko Salesiarrak](#), [Sodupeko Avellaneda](#) eta [Leioako Betiko Ikastola](#) ikastetxeek baja emanda eta Elkartenet lagata.



Ekintza honek [Bilboko Udalaren](#) dirulaguntza jaso du

INFO: <https://www.elkartenet.eus/txikilinux-tailerra-miribilla-eskolan/>

INFO: <https://miribillaeskola.net/txikilinux-tailerra-miribilla-eskolan/>

Miribilla eskola – Familientzako formakuntza

2022ko martxoaren 18an: IKTetan oinarritzako formakuntza tailerra eman genuen Miribilla eskolan, ikasleen familiei zuzenduta.

Taller formación básica en TICs para familiares del alumnado de Miribilla eskola.



Ekintza honek [Bilboko Udalaren](https://www.elkartenet.eus/miribilla-udalaren-dirulaguntza-jaso-du) dirulaguntza jaso du

INFO: <https://www.elkartenet.eus/miribilla-eskola-familientzako-formakuntza/>

Kontxa eskolan IKT-Formakuntza + Toshiba Satellite

2022ko otsailean [Bilboko Kontxa eskolan](#) familientzako IKT-Formakuntza tailerra eman genuen. Ikastaroa emateko [Eibarko Aldatze eskolak](#) bajan emandako (eta proiektu sozialetarako guri lagatako) Toshiba Satellite ordenagailuak erabili ditugu, eta bukaeran familien artean ordenagailu bat zozketatu zen.



Ekintza honek [Bilboko Udalaren](#) dirulaguntza jaso du

INFO: <https://www.elkartenet.eus/kontxa-eskolan-ikt-formakuntza-toshiba-satellite/>

SanInazioBHI: Ekonomia zirkularra-hardware tailerra

2022ko apirilean [SanInazio BHI](#)ko ikasleekin izan gara, eta bertan ***Ekonomia zirkularra: ordenagailuak berregokitzeko hardware tailerra*** eman genuen. Lehenengo zatian hainbat osagai ikusi genituen, oinarritzko plakak, RAM txartelak, diskoak eta elikadura-iturriak konektatu genituen. Bigarren zatian berriz, 6 [Toshiba Satellite berregokitu genituen](#), aurreko astean zentro horretan bertan baja emandakoak.




Ekintza honek [Bilboko Udalaren](#) dirulaguntza jaso du

INFO: <https://www.elkartenet.eus/saninaziobhi-ekonomia-zirkularra-hardware-tailerra/>

Peñascal Kooperatiba-Elkartenet Kolaborazioa

2022ko martxoan eta apirilean, [Peñascal Kooperatibako Boluetako](#) informatikako irakasleak **Elkartenetekin** harremanetan jarri ziren [Mugarik Gabeko Ikasgelak](#) eta [TxikiLinux-XILABA](#) proiektuetan gure elkarteak egindako azken aurrerapenak ezagutzeko, eta **Ekonomia Zirkular, sozial eta solidarioari** buruzko hitzaldi bat eman genuen, zehazki Mugarik Gabeko Ikasgelak proiektuari buruz eta **Linuxek** enpresa eta erakunde publikoetan baja emandako ordenagailuak egokitzeko eskaintzen dizkigun aukerei buruz. Horren harira, Elkartenetek 400 miniportatil eta 20 PUZ eman zituen Boluetako instalazioetan, ikasleek prozesa zitzaten, haiek erabakitzen duten proiektu solidarioa bideratzeko aukerarekin. Prestakuntza-tailer bat eman genuen eta 3 zerbitzari ere utzi genituen **TxikiLinux** sistema eragilearen instalazioak egiteko.

Ikasturtea amaitzean, 2022ko urrian, ikasle bakoitzari berregokitutako ekipoetako bat eman zitzaion.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/colaboracion-penascal-kooperatiba-elkartenet/>

Altza institutuan “Ekonomia zirkularra: hardware tailerra”

Bizkaian, [Leioako Askartza Claret](#) ikastetxean eta [Matiena eskolan](#), 600 ordenagailu baino gehiago bildu genituen eta hilean bertan ordenagailu horietako batzuk lanean ari ziren berriro. Zehazki, Askartzan baja emandako 20 CPU [Peñascal Kooperatiba](#)-ra eraman genituen ikasleen praktiketarako, eta beste 6 CPU eta 10 [Toshiba Satellite](#) [Donostiako Altza Institutuan](#) erabili genituen ikasleentzako tailerra emateko.

Altza institutuan “Ekonomia zirkularra: hardware tailerra” emateko erabili genuen materiala, Askartza Claret ikastetxean jaso genuena izan zen.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/bizkaian-jasotako-ordenagailuak-eta-ekonomia-zirkularra-tailerra-gipuzkoan>

Ekonomia zirkularra tailerra San Benito ikastolan

Maiatzaren 2an Lazkaoko [San Benito ikastola](#)n egon ginen eta 24 ikaslerentzako “**Ekonomia zirkularra: hardware tailerra ordenagailuak berregokitzeko**” eman genuen.

Bi orduko tailer honek bi atal ditu:

- **1.atala: Ordenagailu baten osagaiak ezagutu.**
- **2.atala: Toshiba Satellite eramangarri baten prestazioak hobetu berrerabiltzeko.**
Horretarako, ikastolak berak bajaran emandako ordenagailuak erabili genituen. Ikasleek interes handia erakutsi zuten, eta haiek eta haien irakasleak oso modu positiboan baloratu zuten emandako tailerra.

INFO: <https://www.elkartenet.eus/ekonomia-zirkularra-tailerra-san-benito-ikastolan/>

Hitzaldiak

Informatikari Euskaldunen XII. Bilkura 2022

2022ko uztailaren 1ean Donostian [Informatikari Euskaldunen Bilkura](#)k antolatutako udako ikastaroan parte hartu genuen: “**software librea egitasmoen dinamizaziorako tresna gisa**”

Hitzaldi horretan Eder Etxebarriak ere parte hartu zuen, Txikilinux-en esperientzia Donibaneko ikastolan azaltzeko.



INFO: [Txikilinux XiLaBa Donibaneko ikastolan UEU hitzaldia](#)

INFO: [Informatikari Euskaldunen XII. Bilkura 2022](#)

TxikiLinux-XILABA – Librecon2022

Azaroaren 15ean, **Librecon2022**an izan ginen, eta erakusketari guztien proposamenak ezagutzeaz gain, Gipuzkoako lagunak, **Harrobia ikastolako** ikasleak eta Reciclaneteko lankideak ere topatu genituen, ekitaldiaren babesle gisa **GNU-Linux sistema eragileekin** egokitutako ordenagailuekin stand bat zutelako. **Reciclanetek TxikiLinux-XILABA** instalatzeko aukera eman ziguten beren ekipoetako batean, jendeak ezagutu ahal izan zezan.

Aipatzekoa da TxikiLinuxek Librecon22ra hurbildu ziren pertsona guztien arreta erakarri zuela. Era berean, elkarriketa interesgarria izan genuen **gure erkidegoan CPR (Berrerabiltzeko Prestatzeko Zentroa)** bat egiteko beharrari buruz, eta Eusko Jaurlaritzari nola aurkeztu.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/elkartenet-librecon2022/>

Iturola (Hernani): Software Libreko hainbat esperientzia praktiko

Azaroaren 17an **Hernaniko elkarlan sorgunean (ITUROLA)** izan ginen eta “**Software Libreko hainbat esperientzia praktiko**” hitzaldian parte hartu genuen Iñigo Gebararekin (**Luberri sistema eragilea** + **Irungo Hirubide institutua**), Joxa Darcelesekin (**Hondarribiko Talaia eskola**), Eder Etxebarriarekin (**TxikiLinux XiLaBa** + **Etxepare lizeoa**) eta Joseba Bilbaorekin (**Harrobix sistema eragilea** + **Harrobia ikastola**) batera.

Oso hitzaldi interesgarria izan zen, bai entzuleentzat, eta baita hizlariarentzat ere, hezkuntzan software librean oinarritutako sistema eragileekin lan egiten dugun pertsonak elkartzeko aukera eman zigulako.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/software-libreko-hainbat-esperientzia-praktiko-iturolan-hernani/>

Kabia Digitala 2022ko Durangoko Azokan

Abenduaren 7an **Kabia Digitalean** izan ginen (“**Durangoko Azokan teknologia eta kultura digitalaren inguruan partekatze gunea**”) eta “**Hezkuntzarako baliabide digital libreak**” hitzaldian parte hartu genuen. Gurekin egon ziren **Miren Berasategi** (Deustuko Unibertsitatea), Alex eta Iñigo (**LuberriLinux** sistema eragilea), Eder (**Baionako Etxepare Lizeoa**), **TEKS** (Hezkuntzarako tokiko hodeia), **Abaraska** (Irakasleak euskaraz Fedibertsoan dituzten baliabideak: peertube.eus, pixelfield.eus, lemmy.eus,...), Ikusgela (Euskarazko bideo pedagogiko libreak) eta **Azkue Fundazioa** (Digitalizazioaren hariak).

Gure aurkezpenean, baja ematen ari den **ekipamendu informatikoa berrerabiltzeko** aukerez hitz egin genuen, eta **Euskal Herrian Berrerabilpenerako Prestatzeko Zentro baten beharraz**.





INFO: <https://www.elkartenet.eus/kabia-digitala-2022ko-durangoko-azokan/>

INFO:

KimuDigitalak: Euneraketak + Instalazioak

- **CEP Birjinetxe LHI**

2022ko azaroan ikastetxe honen informatika gelako ordenagailuak eguneratu genituen, TxikiLinux-XiLaBA 2,0 instalatuz





- **Iruarteta Eskola**

2022ko urrian ikastetxe honen informatika gelako ordenagailuak eguneratu genituen, TxikiLinux-XiLaBA 2,0 instalatuz



- **Miribilla eskola**

2022ko urrian ikastetxe honen informatika gelako ordenagailuak eguneratu genituen, TxikiLinux-XiLaBA 2,0 instalatuz



- **Orbegozo**


2022ko urrian ikastetxe honetan TxikiLinux sistema eragilea duten ordenagailu guztiak eguneratu genituen (ikasleen + irakasleen ordenagailuak), TxikiLinux-XiLaBA 2,0 instalatuz



INFO: <https://www.elkartenet.eus/txikilinux-eguneraketak-bilboko-ikastetxeetan/>

CPR-2022

2022an, **Inhar Eskisabelen** eta **Mikel Noyaren** lankidetzarekin, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak berrerabilpenerako prestatzeko jardueran, hondakinen kudeatzaile gisa jarduteko baimena eskatu dugu. **Berrerabiltzeko Prestatzeko Zentro (BPZ)** bat ezartzea da helburu nagusia.



2020aren amaieratik, Berrerabiltzeko Prestatzeko Zentro gisa egiten dugu lan, eta, horregatik, jarduera-lizentzia eta BPZ-baimena eskatu ditugu.

2020ko udatik, baja emandako eta berrerabilpenerako aukerak dituen material informatikoa bidaltzen digute Gipuzkoako ikastetxeek, eta aurten, 2022an, "SOS Toshiba Satellite Bizirik" kanpaina antolatu dugu (Eskola 2.0 programaren barnean banatutako Toshiba Satellite L735-13g eremangarriei buruz). Ekintza honen bidez gure elkartearen baliabideekin 700 ordenagailu baino gehiago biltzea lortu da Bizkaiko ikastetxeetan, Mugarik Gabeko Ikasgelak programan erabiltzeko, eta beste batzuk gure erkidegoko familiei eta enpresei zerbitzua emateko.

2022an ere, **ikastetxeek baja emandako ekipu informatikoak** kudeatu behar zituztenez, **Elkartenetek** materiala **berrikusten du**, berrerabil daitezkeen ekipuak bereizi eta Deustuko gure tailerrera eramaten ditu (**berrerabili**), eta gainerakoak erretiratzea enpresa homologatu baten bidez kudeatzen du. Enpresa horrek dagokion tratamendu-ziurtagiria (birziklapena) ematen dio ikastetxeari.

Gure ustez, protokolo honek, materiala jatorrian bereizi eta modu ordenatuan bilduz, nabarmen hobetzen ditu berrerabilpen-tasak, eta hezkuntza-zentroei TEEHen kudeaketaren arazoa konpontzen die.

INFO: [Proyecto de Ley de residuos y suelos contaminados para una economía circular \(Art 17\)](#)

INFO: [CPR-ELKARTENET-2022 – Inhar Eskisabel](#)

Jasotako eta birgaitutako/birziklatutako ordenagailuen datuak

	2022an jasotako ordenagailuak		KOPURUA						Irteerak			
	Emaila	data	CPU-TXAE	Eskola2,0-berdeak	TTL-ToshibaSAT-Lenovo	portatilak	CPU-OK	Besteak	Guztira	Birgaituak	Biltegia	TXAE
Bizkaia SOS Toshiba Satellite BIZIRIK	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-02-24		44					44	0	0	44
	Osakidetza Basurto	2022-02-25					59		59	59	59	0
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-03-04		85	57				142	30	27	85
	La Salle Sestao	2022-03-16	28	140	71			23	262	38	33	191
	Abadiñoako institutua	2022-03-11			68				68	36	32	0
	Galdakao Urreta2	2022-03-01	4	100					104	0	0	104
	Osakidetza Zumarraga	2022-03-14					18		18	18	18	0
	Santurtzi Kantauri	2022-03-10			38				38	20	18	0
	Galdakao Bengoetxe	2022-03-16			122				122	65	57	0
	Trapagaran Itxaropena Ik	2022-03-16		14	75				89	40	35	14
	Leioa Betiko Ikastola	2022-03-16			31				31	17	14	0
	Barakaldo Salesianos	2022-03-16			42				42	22	20	0
	Ortuellako institutua	2022-03-16			53	12			65	35	30	0
	Sodupe Avellaneda	2022-03-16			32				32	17	15	0
	Bilbo Saninazio	2022-03-18			90				90	48	42	0
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-03-28	13	357	1				371	1	0	370
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-03-31			94				94	50	44	0
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-04-06		101	3				104	2	1	101
	Leioa Askartza Claret	2022-05-24	60	270	265			29	624	141	124	359
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-06-01			205				205	109	96	0
	Muskiz San Juan	2022-06-03	6	120					126	0	0	126
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-06-07			176				176	94	82	0
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-06-09		14	276	3			293	149	130	14
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-06-17	1	296		5			302	3	2	297
	Sestao Kueto	2022-06-27	24	73			6	32	135	3	3	129
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-07-26		154	171	3			328	93	81	154
	Gipuzkoako ikastetxeak	2022-09-26		39	263				302	140	123	39
	Bizkaiko Ikastetxeak	2022-11-22	12	1	1		14		28	8	7	13
	Leioa Lamiako eskola	2022-12-09	7					7	14	0	0	14
	Ayto Sondika	2022-09-15						13	13	0	0	13
			155	1808	2134	23	97	104	4398	1237	1094	2067
			2331						4398			
Mauritania-2023							532					
Errachidia							400					
Nepal							12					
Ghana							6					
enpresak							130					
ASF-2023							77					
Familiak							37					
ikasleak							20					
Ikasgelak							23					
STOCK							1094					
							2331					

SOS Toshiba Bizirik

Garbigunera eta Indumetalera Toshiba Satellite (S.O.S Toshiba Satellite-Eskola2.0 gorriak-BIZIRIK) eramangarriak EZ eramateko eskatu genien ikastetxeei, “maitasun” apur batekin (RAM+SSD) oraindik zerbitzua eman dezaketelako eta hauen bizi-zikloa beste urte batzuk luzatu dezakegulako.

Bizkaiko ikastetxe asko **Elkartenetekin** harremanetan jarri ziren eta 2022ko martxoan 559 Toshiba, 63 TTL+Lenovo eta gure elkartearentzat oso erabilgarria izango den bestelako ekipamendua berreskuratu genituen.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/s-o-s-toshiba-satellite-bizirik-bilketa-bizkaian/>

INFO: <https://www.elkartenet.eus/toshiba-satellite-bilbao-mellab/>

INFO: [jasotako ordenagailuak eta “Ekonomia zirkularra” tailerra](#)

Osakidetza informatika solidarioa + Mugarik Gabeko Ikasgelak

Bilbao Basurto ESIko Informatika Zuzendariordetzak eta Goierri-Urola Garaiko ESIk Mellaben (Amazigh herria, Marokoko hegoaldean) 12 gela sortzeko Mugarik Gabeko Ikasgelak proiektuarekin lankidetzan aritzeko gure eskaerari erantzun zioten. Basurtutik 69 kalitatezko ordenagailu jaso genituen (HP i5 Ultra-slim), gaur egun Errachidia-Mellaben Mugarik Gabeko Ikasgelak proiektuan eta Baionako Etxepare Lizeoan lanean ari direnak. Zumarragatik (Goierri-Urola Garaiko ESI) Bizkaiko ikastetxeetan eta Errachidia-Mellaben zerbitzua ematen ari diren 18 ordenagailu jasotzen ditugu.

INFO: <https://www.elkartenet.eus/osakidetza-mugarik-gabeko-ikasgelak/>

Jasotak				Entregatuak				Erabilera
OSI Bilbao Basurto	HP Compaq Elite 8300 -I5 + 4Gb RAM Ultra-slim	2022-02-25	23	Etxepare Lizeoa Baiona-Lapurdi	HP Compaq Elite 8300 -I5 + 8Gb RAM Ultra-slim	2022-04-21	23	Ikaslegoa
OSI Bilbao Basurto	HP Compaq Elite 8100 - DualCore VPro + 4Gb RAM Ultra-slim	2022-02-25	36	Errachida – Mellab Aulas Sin Fronteras Marruecos-sur	HP Compaq Elite 8100 - DualCore VPro + 8Gb RAM + 240Gb SSD Ultra-slim	2022-05-27	6	Administración escuelas y Lizeo == Drivers Impresoras
OSI Bilbao Basurto	HP Compaq Elite 8200 -intel I3 + 4Gb RAM	2022-02-25	10	Etxepare Lizeoa Baiona-Lapurdi	HP Compaq Elite 8200 - intel I3 + 8Gb RAM	2022-04-21	12	Alumnado
OSI Goierri-Alto Urola	HP Compaq Elite 8200 -intel I3 + 4Gb RAM	2022-03-14	18	Errachida – Mellab Aulas Sin Fronteras Marruecos-sur	HP Compaq Elite 8200 - intel I3 + 8Gb RAM + 240Gb SSD	2022-05-27	12	Profesorado Errachidia - Mellab
				Peñascal Kooperatiba Bilbao-Bolueta	HP Compaq Elite 8200 - intel I3 + 4Gb RAM	2022-03-31	3	Servidores x instalación
				Errachida – Mellab Aulas Sin Fronteras =2º	HP Compaq Elite 8100 - DualCore VPro	2022	28	Aula informatica Lizeo Mellab 2º envío
				Indumetal Recycling	HP Compaq Elite 8100 - DualCore VPro	2022-05	2	Reciclaje
				Indumetal Recycling	HP Compaq Elite 8200 - intel I3	2022-05	1	Reciclaje
TOTAL			87	TOTAL			87	

Arizmendi ikastola BPZaren alde

Arizmendi ikastolako irakaslegoarekin harremanetan gaude, Berrerabiltzeko Prestatzeko Zentro baten funtzionamendua ezagutu nahi dutelako, eta horretarako Arizmendi ikastolan bilera-aurkezpen bat izan genuen. Aurten Gaizkak bisitatu gaitu, gure berregokitzaile lana eta **Reciclanet**ek ekipo informatikoak berregokitzen duen 10 urteko esperientzia ezagutzeko. Reciclaneten Erandioko instalazioetan izan ginen eta Ramonek eta Victorrek ordenagailuak hartzeko, prozesatzeko eta merkaturatzeko prozedurak azaldu zizkiguten. 2023an “Ekonomia zirkularra: hardware tailerra” egingo da Arizmendi ikastolan.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/arizmendi-ikastola-elkartenet-reciclanet/>

Elkartenet-Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua

Asier, **Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua**ko irakaslea, gurekin harremanetan jarri zen ikasleekin praktikak egiteko ekipo informatikoak behar zituztelako. Hainbat CPU eta eskola 2,0 eraman zituen martxoan eta irailean Ortuellako institutuan baja emandako ordenagailuentzako 4 orga elektrifikatu (Gurpil berriekin eta elkrizitatea konponduta) jaso zituen.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/elkartenet-tolosaldea-lanbide-heziketa-institutua/>

Intxaurrondoko biltegien birziklapena eta berrerabilera


Gipuzkoako Hezkuntza Sailaren Intxaurrondoko biltegien birziklapena eta berrerabilera antolatzea



Elkartenet + San Vicente de Paul

Elkarte honen lokaletan (Altube kalea, 4, Bilbao-Errekalde) informatika-gela bat prestatu genuen 2022ko azaroan, ikasleei eskolaz kanpoko zereginetan zerbitzua emateko.

Irakasleen ordenagailuak ordezkatu eta wifi mesh sistema instalatu genuen lokaleko hainbat puntutan Internetarako konexioa hobetzeko.




INFO: <https://www.elkartenet.eus/elakartenet-san-vicente-de-paul/>

TxikiLinux-XiLaBa Xiberoa-Lapurdi-BaxeNafarroa

2022 urtean TxikiLinux-XiLaBa bertsioa garatu dugu (64 biteko bertsioa), [Linux Mint-21](#)ean oinarrituta eta 2022ko abuztuaren 2an eguneratua.

Prozesadore duala edo goragokoa eta 4Gb RAM duten ordenagailuentzat gomendatua, eta bereziki Toshiba Satellite I735-13g-rentzat, SSD eta 4GbRAM bidez berregokitua. XFCE mahaigaineko ingurunea eta TxikiLinux-32 bertsioaren aplikazio didaktiko guztiak daramatza. LibreOffice pakete osoa dauka, bai eta edozein erabiltzaileri zuzendutako aplikazio ugari ere (Gimp, Kdenlive, Audacity, Vokoscreen-ng, OBS Studio, Shortwave, Freetube...)

XiLaBa, ikasleetako irakasleek eskatu dituzten aplikazioak daramatza, haiek sortu zituzten izena eta mahaigaineko azala..... Ikastolako irakasleek lagun batzuen laguntzarekin (kasu honetan **Elkartenet eta Harrobia Ikastola**) gure ikasle guztientzat, maitasun handiz, prestatu dugu hezkuntzarako tresna hau, XiLaBa.



Ekintza honek [Bizkaiko Foru Aldundiaren](#) laguntza jaso du

INFO: <https://www.elkartenet.eus/txikilinux-eskola-2-0-eus/>

Donibaneko ikastola:

Ikastolako ordenagailuetan XiLaBa instalatzeaz gain (27 ordenagailuetan), 14 Toshiba Satellite berregokitu utzi ziren, (SSDa jarrita eta RAMa 4Gbera handituta).



INFO: <https://www.elkartenet.eus/txikilinux-xilaba-eguna-donibaneko-ikastolan/>

Herri Urrats-2022:

TxikiLinux erakustokiak harrera bikaina izan zuen Herri Urratsen gurasoen eta ikasleen artean. Hainbat ikastola ezberdinetako gurasoekin hitz egiteko parada izan genuen, denak pozik zeuden proiektuarekin eta haien ikastola eta ikastetxeetan TxikiLinux izatea gustatuko litzaiekeela esan ziguten.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/txikilinux-erakustokia-harrera-bikaina-izan-zuen-herri-urratsean/>

Seaskako ikastolen digitalizazioa:

2022ko ekainean **Seaska**ko arduradunekin bilera izan genuen 38 ikastolak digitalizatzeko proiektua aurkezteko. Aurkeztutako proiektua ekonomia zirkular eta sozialeko proiektu bat da, Hego Euskal Herriko erakunde publikoetan eta ikastetxeetan baja emandako ordenagailuak eta ekipamendu informatikoa berrerabiltzean eta hezkuntza-eremura bideratutako software propioa (TxikiLinux-XiLaBa) garatzean oinarritua. Gaur egun, Bilboko Udalarik 2023an ordezkatzeko diren ordenagailuak eskatu zaizkie, Ipar Euskal Herriko ikastoletan erabiliak izan daitezzen.

2022ko abenduaren 27an egin den Seaskako ikastolen Batzar Orokorrean, digitalizazio prozesuan apustua egin zen Software Librearekin garatzearen alde; **Baionako Etxepare Lizeo**ko irakasleak lanean ari dira prozesu horretan, eta 2022an proiektuak, hitzaldiak eta esperientziak partekatu ditugu.

Osakidetza eta **Bizkaiko eta Gipuzkoako Ikastetxeek** baja emandako ordenagailuak, monitoreak eta bestelako material informatikoak eman dizkiegu Elkartenetetik. **Etxepare Lizeoan**, ikasleek Linux sistema eragile batekin lan egiten dute, ikastetxeko zerbitzarian instalatuta, hori dela eta, **Elkartenetek emandako ekipoak egokitu egin dira**, disko gogorra kendu eta RAM memoria gehiago gehituz.

Testuinguru honetan Etxepare Lizeoko LH Merkataritzako ikasleek **Ilargi ikasle kooperatiba** sortu dute, Elkartenetek berreskuratutako ordenagailuak Seaskako lehen mailako ikastoletako haurrei eskaintzeko helburuarekin.

2023ko urtarrilean, **Bilboko Harrobia Ikastola**arekin ikasle-truke batean, Bizkaiko **Reciclanet**, **Elkartenet** eta Harrobia Ikastola eta Baionako **Waaz estudioa**, **Euskal Moneta** eta Etxepare Lizeoa bisitatuko dituzte. Ikasleen arteko **esperientzia-truke** honen helburua da, besteak beste, Ipar Euskal Herriko ikastolen digitalizazio-prozesua garatzea (ekipo informatiko birgaituekin eta Software Librearekin), Etxepare Lizeoa eta Harrobia Ikastolako ikasleei gaur egun Bizkaiko berritzaileok (Reciclanet eta Elkartenet) lantzen ditugun software-ezagutzak, -esperientziak eta -tresnak eskainiz.

INFO: [Berreskuratutako ordenagailuak Seaskako haurrei eskaintzeko ikasle kooperatiba sortu dute](#)

BegiON – ikusmen murriztua duten pertsonentzat

TxikiLinux sistema eragilearen beta bertsioa da, ikusmen murriztua duten pertsonen zuzendua.

2022ko udan **tifloteknologia** eta Linuxek eskaintzen dituen irisgarritasun aukerak aztertzen hasi ginen, **SamsaraNepal** elkartearen **Ananda**ko haurrentzat 6-8 ordenagailu eramangarri prestatzeko (ikusmen-murriztua duten haurren eskola-, gizarte- eta jolas-prestakuntza).

Tifloteknologia (grekerako "tiflos" terminotik, itsua) izenarekin pertsona itsuentzat teknikak eta tresnak berriak sortzean datzan teknologia izendatzen da. Teknologia honen helburu nagusia itsuen eta ikusmen-urritasuna duten pertsonen bizitza erraztea da.



Ekintza honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du

INFO: **[BegiON-- SamsaraNepal-Agharas-Elkartenet](#)**

INFO: **<https://www.elkartenet.eus/txikilinux-eskola-2-0-eus/>**

Mugarik Gabeko Ikasgelak

Elkartenet elkarteak, Agharas Bizkaiko Imazighen elkartearekin elkarlanean, amazigh herriko (Marokoko hego-ekialdea, Daraa Tafilalteko komunitatea) erakundeekin lankidetzako proiektu bat proposatu zuen, berrerabilitako informatika-ekipoak, mahaiko ordenagailuak eta mini eramangarriak eramateko, haur- eta lehen-hezkuntzako haurrek erabil zitzaten. Proiektuan amazigh herriko hainbat erakundek hartu dute parte. Hala nola, tokiko garapenaren aldeko elkarteak, haur eta lehen hezkuntzako ikasleen guraso-elkarteak, emakumeen kooperatibek eta lehen hezkuntzako irakasleen elkarteak.



**AULAS SIN
FRONTERAS**

Hasiera Proiektuari buruzko Informazioa Berriak Bideotutorialak Castellano English Français

Helburua lortu dugu! Joan den irailaren 20an, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeek, Osakidetzak eta Vortex Dimensión Digitalak lagatako ekipamendu informatikoa entregatu genuen Mellaben (Errachidia).

Aoudim elkarteak eta Mellabeko Udalak programan parte hartzen duten 12 eskolei eman diete materiala.

Eskerrik asko **Ekonomia Zirkularra, Soziala eta Solidarioa** proiektu hau zuen ekarpenekin gauzatu duzuen pertsona, elkarte eta erakunde guztiei.



 Lagundu Errachidia-Mellab II-2023

INFO: <https://aulassinfronteras.org/eu/hasiera/>

INFO: <https://aulassinfronteras.org/eu/proiektuari-buruzko-informazioa/>

INFO: <https://aulassinfronteras.org/noticias/>

2022ko maiatzean Errachidia-Mellab proiektua:

Elkartenet eta Agharaseko 8 boluntario Mellab-Errachidiara (Marokoko hego-ekialdea) joan ginen mailetan 22 ordenagailu hartuta, eta herri horretarako sortutako TxikiLinuxen bertsioa aurkeztu genien [Mugarik Gabeko Ikasgelak-Errachidia](#) proiektuan parte hartuko zuten eskoletako irakasle eta ikasleei, Tamazight hizkuntzan egindako bideotutorialekin.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/txikilinux-prestakuntza-errachidiako-eskoletan-egindako-bisitak-visitak-a-realizadas-a-escuelas-de-errachidia/>

INFO: <https://aulassinfronteras.org/noticias/>

INFO: [Marokoko telebista](#) + [EITB](#)

2022ko irailean: Gipuzkoako eta Bizkaiko ordenagailuak Mellaben daude

Guztira 12 ikasgela digitalizatzeko asmoz, Miribillako Harrobia Ikastolatik atera ginen ostiralean, hilak 16, atoidun furgoneta batekin eta 400 eramangarri, mahai gaineko ordenagailuak, inprimagailuak eta fotokopiagailuak Mellabera eramateko asmoz (Amazigh herria, Marokoko hego-ekialdea Errachidia probintzian).



INFO: <https://www.elkartenet.eus/gipuzkoako-eta-bizkaiko-ordenagailuak-mellaben-daude-errachidia-marokoko-hego-ekialdea/>

INFO: <https://www.elkartenet.eus/the-aoudim-association-delivers-to-the-schools-of-mellab-the-computer-equipment-of-bizkaia-and-gipuzkoa/>

Errachidia 2022-2023

2022ko Mugarik Gabeko Ikasgelak proiektuan, 2023ko urtarrilean Mohammad Saadi Errachidiara joango da eta 30 egunez irakasleei prestakuntza emango die. Hezkuntza Sailak kontratatutako IKT arduradunarekin batera, IKT arduradun bat izendatuko dute ikastetxe bakoitzean, irakasle eta ikasleen prestakuntza eta digitalizazio prozesuarekin, martxotik aurrera, Bilbotik online jarraitzeko.



مشروع فصول دراسية بلا حدود تستقبله مؤسسات (الرشيدية – ملعب)

TxikiLinux-Errachidia bideotutorialak Tamazight hizkuntzan

Mugarik Gabeko ikasgelak: Samsara-Nepal + TxikiLinux

2022ko udan [SamsaraNepal elkartearekin](#) harremanetan egon ondoren, [Ananda proiektu](#)ko ikasleentzako ordenagailuak prestatu genituen (tifloteknologia eta Linuxen ikusmen murriztua duten pertsonentzako irisgarritasun-aukerek). Irailean entregatu genituen eta SamsaraNepal elkarteak Nepalera eraman zituen.

Ordenagailuak, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan baja emanda, berregokitu egin dira RAM gehiago gehituz eta diskoa SSD batekin ordezkaturaz. Braile hizkuntzan idazteko erliebedun eranskailuekin ere egokitu da teklatura, eta ordenagailurako bozgorailuak bidali dira (Gipuzkoako institutuek emandakoak). **TxikiLinux** sistema eragilea ikusmen murriztua duten pertsonentzako irisgarritasun-aukerek egokitu da, BETA bertsio batean ([TxikiLinux-BegiON](#))



Ikaslearen irudi horrek, LibreOffice Writer-ekin etxeko lanak egiten ari zela, hunkitu, harrotu egin gintuen....., eta merezi izan zuen ahalegin guztiak, ikusmen murriztua duten ikasleentzat ekipoak egokitzeko.




[TxikiLinux BegiON bideotutorialak nepali hizkuntzan](#)

INFO: <https://www.elkartenet.eus/nos-vamos-a-nepal-nepalera-goaz/>

INFO: <https://www.elkartenet.eus/los-ordenadores-de-bizkaia-y-gipuzkoa-ya-estan-dando-servicio-en-nepal/>

Eskola 2.0 Ghanara ere iritsi da!

Joan den uztailean, [CCD-UPC \(Centre de Cooperació per al Desenvolupament/Centro Cooperación para el Desarrollo](#) de la Universidad Politécnica de Catalunya) elkarteko **Marc-ek** [Mugarik Gabeko Ikasgelak](#) proiektua ezagutu zuen, eta **Elkartenetekin** harremanetan jarri zen, Ghanako proiektu baterako eramangarri batzuk behar zituztelako.



INFO: <https://www.elkartenet.eus/eskola-2-0-ordenagailuak-ghanara-ere-iritsi-dira/>

Informazioa +

Gure Webgunea: <https://www.elkartenet.eus/>

[450 ordenadores viajarán a Marruecos para que niñas y niños de infantil y primaria puedan estudiar Txikilinux Marokoko telebistan](#)
[Elkartenet-Agharas-Aoudim entrega de los ordenadores en Errachidia-Mellab](#)

Kontaktua

ELKARTENET Hezkuntza Elkartea – Asociación Educativa ELKARTENET

Plaza de la Cantera 4, 1º Bilbao 48003 – Harrobia Ikastola

CIF: G95962825

<https://www.elkartenet.eus/>

KimuDigitalak proiektuaren arduradunak

Jabi Alfaro	<u>j.alfaro@elkartenet.eus</u>
Joaquín Firmino	<u>j.firmino@elkartenet.eus</u>
Mohammad Saadi	<u>m.saadi@elkartenet.eus</u>

Gurekin harremanetan jartzeko

Emaila: elkartenet@elkartenet.eus

Telef: 696 320 319

Memoria de actividades 2022

Formación + Talleres	2
Taller TxikiLinux en Miribilla eskola.....	2
Miribilla eskola – Formación para familias.....	3
Kontxa eskola Formación TIC + Toshiba Satellite.....	4
SanInazioBHI: Taller “Ekonomia Zirkularra-hardware tailerra”.....	5
Colaboración Peñasal Kooperatiba-Elkartenet.....	6
Instituto Altza (Donostia) “Ekonomia zirkularra: hardware tailerra”.....	7
San Benito ikastola: Ekonomia zirkularra tailerra.....	7
Exposiciones-presentaciones	8
XII Congreso Informatikari Euskaldunak 2022.....	8
TxikiLinux-XILABA – Librecon2022.....	9
Iturola (Hernani): Diversas experiencias prácticas de Software Libre.....	10
Kabia Digitala 2022ko Durangoko Azokan.....	11
KimuDigitalak: Actualizaciones + Instalaciones	12
CPR-2022	13
Resumen de ordenadores recibidos y reutilizados / reciclados.....	14
SOS Toshiba Bizirik.....	15
Osakidetza informática solidaria + Aulas Sin Fronteras.....	16
Arizmendi ikastola +CPR.....	17
Elkartenet-Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua.....	17
Reciclaje y reutilización en el almacén de Intxaurreondo.....	18
Elkartenet + San Vicente de Paul.....	18
TxikiLinux-XiLaBa Xiberoa-Lapurdi-BaxeNafarroa.....	19
Donibaneko ikastola:.....	19
Herri Urrats-2022:.....	20
Digitalización de las ikastolas de Seaska.....	20
BegiON – S.O. para personas con visión reducida	21
Aulas Sin Fronteras	22
Mayo de 2022: Proyecto Errachidia-Mellab.....	23
Septiembre de 2022: Los ordenadores de Gipuzkoa y Bizkaia se entregan en Mellab.....	24
Errachidia 2022-2023.....	25
TxikiLinux-Errachidia bideotutorialak Tamazight hizkuntzan.....	25
Aulas Sin Fronteras: Samsara-Nepal + TxikiLinux.....	26
TxikiLinux BegiON bideotutorialak nepali hizkuntzan.....	26
Eskola 2.0 también llega a Ghana!.....	27
Informazioa +	28
Kontaktua	28

Jarduera horietako batzuk egiteko, [Bilboko Udala](#)ren eta [Bizkaiko Foru Aldundiaren](#) dirulaguntzak jaso ditugu.

Formación + Talleres

Taller TxikiLinux en Miribilla eskola

